



Hegaka eta ihesi.- Haurrei zuzendutako "Ezetz hegan egin" obra eskaini zuen larunbata arratsaldean Teatro Paraiso taldeak Manuel Lekuona kultur-etxeko areto nagusian. Antzerkiaren ildo haurrentzat pentsatua bazegoen ere, hurbildu ziren guraso apurrek ere benetako irakaspenak ateratzeko parada eduki zuten, gaur egungo gizarteari nolabaiteko kritika egiten baitzion antzerkiak. Besteak beste, jendarte modernoaren berekoikeria, gizakien jarduerak eragiten dituzten suntsipen naturalak, alde egitearen beharra, laguntasuna eta maitasuna bezalako gaiak jorratu zituen lau aktoreen lanak. Irla Ozeanikoetako "tourons" hegazti espeziea bailiran, aurpegia margotu eta sudur luzeak jarrita antzeztu zuten, atzealde urdin disdiratsu bat lagun zutela, arrapala batez eta eguzkia imitatzen zuen puntu gorri batez lagunduta. Aldaketa klimatiko bortitza medio, txoriek alde egin behar izan zuten leku seguruagoen bila eta abentura horretan izandako bizipenak adi-adi jarraitu zituzten umek.

3 ISLADA EZKUTUAK
36ko gerraren hasiera Iñaki Egañaren eskutik

Oroimen Historikoaren aldeko Islada Ezkutatuak taldeak hitzaldia antolatu du Gerra Zibilaren lehen gertaerak eta garaia kokatzeko. Iñaki Egaña historialariak "...eta gerra iritsi zitzaigun" izeneko hitzaldia emango du ostegunean, hilaren 21ean, arratsaldeko 19:00 Manuel Lekuona kultur etxean.

4 KULTUR KALE ZIKLOA
Bigarren urtez, kultura kalera ateratzeko ekimena

Lasarte-Oriako Udala eta Xpre-sionk! kultur elkarteak zikloaren bigarren urtea jarri dute martxan. Berrikuntza nagusia uda aldean ekimenak antzokietatik atera eta kalean egingo dituztela izango da. Halere, urte osoan zehar kontzertuak eskainiko dira herriko denda eta taberna ezberdinetan.



Ostirala 22an ez da TXINTXARRI-KO zenbakirik argitaratuko. Hurrengo zenbakia otsailaren 25ean iritsiko da zuen etxeetara.

IEFPS Don Bosco GLHBI

HARREMANA
travesiadonbosco@hotmail.com
Tel.:615 753115



Don Bosco III. Ibilaldia
III Travesía Don Bosco

2013KO OTSAILAK 23
23 DE FEBRERO DE 2013

HARREMANA/CONTACTO:
travesiadonbosco@hotmail.com
tel. 615 753 115



San Marcos Errepidea z/g • 20100 Errenteria
Tel.: 943 51 04 50/54/58 Fax-a: 943 529 220
email-a: donbosco@fpdonbosco.com

Adituak dio



Oihana Salazar
Psikoterapeuta

Gaur egun segurtasuna bermatu asmoz, hamaika produktu ditugu merkatuan: alarmak, kamerak, ate blindatuak..., dena kontrolpean edukitzea, ezinbestekoak omen dira. Gu geu ere blindatuak gara, sinestera iritsi gara, ukiezinak eta garaiezinak, errealtateak geure lekuan jartzen gaituen arte.

Azken boladan, behin baino gehiagotan entzun dugu lapurretak izan direla han eta hemen. Norbait baimenik gabe etxera sartzen zaigunean, ate blindatua erortzearekin batera gure armadura ere erortzen da. Nor bere etxean seguru eta babestuta sentitu ohi da gehienetan. Hala ere, horrelako gertaerek lokartuta izan ditugun sentsazio eta emozioak agerrarazten dituzte: beldurra, sentiberatasuna, amorruta, agresibitatea, isolamendua, estresa, erruduntasuna, babesik eza, hauskortasuna, ahultasuna eta antsietatea, besteak beste. Honek guztiak, edonoren bizitzan eragiten du, noski.

Indarkeriazko delituak beldurra eta babesgabetasuna sortzen duten gertaera negatiboak dira eta arriskuan jartzen dute banakoaren integritate fisiko nahiz psikologikoa. Edozein traumak, kasu honetan lapurretak, pertsonak duen segurtasun sentimentuan pitzadura bat eragiten du, eta ez soilik biktimarengan, baita ingurukoengan ere. Konturatu nahi ez arren, segurtasun eza pairatzen dugu egunerokotasunean eta horrek oinaze psikologikoak utzi diezazkiguke.

Oinaze hauek garrantzi handia dute dudarik gabe, baina are garrantzitsuagoa da gertatzen edota egiten diguten horren aurrean norbanakoak hartzen duen jarrera. Lehenengoa, sarritan ez dago gure esku, bigarrena bai, ordea!

Krisiaren ondorio

Azken asteetan edo hilabeteetan etxeetan, tabernetan... lapurreta gehiago dagoela zabaldu da gurean. Egia da izan direla halakoak Lasarte-Orian baina jendeak nabaritu al du aldaketarik? Beldur gehiago sentitzen al du? Beldurra ez, baina kezkatuta daudela azaltzen dute azken aldiaren ohikoak direlako lapurretak auto zein etxeetan.

Krisi garaia dela eta, behar gehiago omen dago eta horren ondorioz, lapurreta kopurua igo dela zabaldu da. Duela ez asko udaltzainek eskatzen ziguten Txintxarrin zabaltzeko bi lapur, emakumezko ile horia eta gizon bat, biak oso jantzita eta txukun itxurarekin berriz ere adineko baten etxean lapurtzen saiatu zirela.

Aurretik adineko pertsona baten etxean udal langileak zirela esanda, atea ireki eta etxera sartu zen bikote bera. Behin barruan zirela lapurreta burutu zuten. Udaltzainek mesedez ezezagunei atea ez irekitzeko eskatzen zieten herritarrei. Badirudi adinduek direla gainera hauek pairatzeko arrisku gehien dutenak.

Negozioek nabaritu dute lapurreten gorakada eta berez, egun irabaziak jendearen kontsumo gaitasunarekin batera jaitsi diren honetan, lapurreta hauek ez dute laguntzen gure herriko denda edota tabernen biziraupenean.

Badirudi azkenean krisi ekonomiko honek lortuko duela gure inguruan guztia kolokan jartzea, lana, kontsumoa, osasuna, hezkuntza...

Hitz eta pitz

Ba al dago lapurreten beldurrik?



Ester Hernando

Bai. Egun batzuetarako kanpora, beldurrez, joaten gara, itzultzerako den dena lapur-ta eta etxea hustuko digutela pentsatuz. Kalean aparkatutako autoak zabaltzen dituztela esaten dute. Lehen ere entzuten ziren horrelakoak, baina agian gutxiago. Jendea kezkatuta dabil. Ate blindatua jarrita ere, lapurtu nahi duenak berdin lapurtuko du dena den. Krisi garaian bizi-modua atera behar du eta.



Emilio Barcenas

Bai, gaur bertan esan didate etxe batetik bi felpudo lapurtu dituztela. Nik uste dut atek itxi egin behar direla. Lehen baino neurri gehiago hartu behar dira, zalantzarik gabe. Dena den, ni bizi naizen tokian ez dugu nabaritu lapurretarik dagoenik. Ondo gabiltza. Bestela, istilu politikoaren aldetik askoz ere hobeto gaude. Lasaiago dago egoera, ez dago arazo edo iskanbilarik.



Pilar Botana

Ez, guk ez dugu esperientzia txarrik izan. Hemen besteenetik edeki bizi direnak politikariak dira, horiek bai. Telebistaz edo irrati-entzuten da lapurretak egoten direla, baina hurbilekoen artean ez, inork ez dit komentatu bere etxean sartu direnik, ezta inork kontrako neurririk hartu, edota, ate seguruagoa jarri duenik. Momentuz behintzat. Ea horrela segitzen dugun.



Arkaitz Izagirre

Ez zait iruditzen. Lapurreten zurrumurruak entzuten dira, bai, eta atea ixten ez zue-nak, agian etxeetan sartzen ari direla entzun eta segurtasun neurri minimo batzuk hartuko ditu, itxi egingo du atea, baina askoz gehiago ez. Krisia hasi denetik pentsa daiteke behar gehiago daudela eta horrelako ekintza gehiago egiten direla... agian bai, eta beldurra bakoitzaren kontua da.

Iruditzen



La Voz de Gipuzkoak eman zuen honen berri zehatz.

Hilketa misteriozua

Lasartek gainontzeko herrien antzera baditu bere historian herritarren artean belaualdiz belaualdiz pasatako gertakizunak. Horieta bat Chimista Eneako hilketa izan zen. Garaiko prentsak oihartzun handia eman zion eta hala geratu da jasota. Honakoa 1918. urteko urtarrilean argitu zen. Etxe honetako Antonia Beloki desagertu egin zen azaroan. Emakumeak 74 urte zituen eta neska baten berarekin etxean soilik. Honen semea Ameriketarik bueltatu eta Antioniaren etxean hartu zuten amarekin batera geratuz. Emakumea desagertu eta berehala erreparratu zioten herritarrek neska baten semea prentsan jaso zenez. Honek parranda ederrak bota zituen emakumea desagertu zen egunetan nahikoa diru gastatuz, lekukoek esaten zutenaren arabera. Jarrera hau arraroa iruditzi zitzaien herritarrei, izan ere, jakina zen Prudencio Zozayak ez zuela diru askorik. Prudencio poliziari esan zion Antonia Parisera joana zela azaroan eta ez zekitela noiz bueltatuko zen Lasartera. Azalpenak ez ziren sinesgarriak izan eta ikerketa jarraitu zuen poliziak, urtarrilean etxean sartu eta ezkutuan zeuden kutxetan dokumentazioa eta diru asko topatu zuten. Hauek erruduntzat jo zuten Zozaya baina gorpua aurkitu behar. Azkenean etxearen sotoan topatu zuten.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,
Maider Azurmendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

ISLADA EZKUTATUAK

36ko gerra hasiera azalduko du Iñaki Egañak ostegunean

Islada Ezkutatuak taldeak hitzaldia antolatu du Lasarte-Orian gertaerak eta garaia kokatzeko

Iñaki Egaña historialariak "...eta gerra iritsi zitzaigun" izeneko hitzaldia emango du datorren ostegunean hilaren 21ean arratsaldeko 19:00 Manuel Lekuona kultur etxean. Islada Ezkutatuak, Lasarte-Oriako Oroimen Historikoaren Aldeko taldeak antolatu du gerraren lehen hilabetei buruzko hitzaldia. Taldearen helburua, orain arte jasota dagoen informazioa herriari ezagutaraztea da.

Jon ALTUNA IZA

Erantzun oso ona izan zuen "Islada Ezkutatuak" 1936ko gerraren inguruko informazioa jasotzeko helburuarekin herrian sortu den lan taldeak, eta Iñaki Egaña historialariarekin batera, bi hitzaldi antolatuko dituzte, garai hartako egoera azaltzeko: lehenengoan, ostegunean, 1936ko gerra, eta, bigarrenean, gutxi gorabehera hilabete berru, frankismoaren lehen urteak jorratuko dira.

Iñaki Egaña berak esan digunez, osteguneko lehen hitzaldian azalduko ditu gerraren abiapuntu nagusienak eta konkretuki, Lasarte-Orian gertatutakoak. Gai honen inguruko interesa duen herritarrek kokatzeko hitzaldia izango da bere iritziz, "adituok gutxi gorabehera badakigu gertatutakoa, eta beraz, nire helburua guk dakiguna gizarteratzea izango da, hau da, azken urteotan zenbait artxiobotan jasotako eta hainbat lekukoan

testigantzen bidez jakindakoa zabaltzea".

Egañak jakinarazi digu, gerrari buruzko azalpen orokorrez gain, Lasarte-Orian gertaera konkretu asko dagoela aipatzeko, besteak beste, "borrokaren azken egunak nolakoak izan ziren herrian, eta berezitasun batzuk ere bai, esate baterako, hegazkinentzat zelai bat prestatu zutela hipodromoan edota herriko langileak fronte batzuetara joan zirela".

Aranzadi zientzia elkartearen ari da lanean Iñaki Egaña, 1936ko gerrako dokumentazioa eta desagertuen bilaketan. Bestalde, lan mardula egin zuten XX. mende amaieran Egañak zuzendu zuen 1936ko gerrari buruzko entziklopedia osatzeko. Dena den etengabe ari dira datu berriak jasotzen. Azken hiru astetan Asturiasko Areces herrian izan dira: "Han 1937an euskaldun asko hil zituzten, eta gauzak argitzen dira, bertan egindako lanaren eta artxiobotan bilatutakoaren ondorioz".



Iñaki Egaña, abenduan Villa Mirentxun, "Islada Ezkutatuak" taldearen aurkezpenen ekitaldian.

Aranzadi elkarte, zenbait erakunderen laguntzarekin orain dela zortzi urte lan horietan hasi zenetik, desagertuen senideen 800 eskaera jaso ditu. Egañaren iritziz, "horrek esan nahi du ikertzeko eta sudurra sartzeko gune asko daudela. Gutxi gorabehera errepresioaren mapa osatu dugu, edo osatzen ari gara, baina beti geldituko dira ikertu ez diren gertaerak. Beti egongo dira ikertzeko gune eta eremuak".

Testigantza zuzenak

Historialarien azken urteotako lana eta helburua gerra bizi izan zutenen ahotik gertatutakoa jasotzea izan da. Gertatu zena gertatu zen bezala jaso eta hori ezagutarazteko. Dena den, denbora aurrera doa eta gerra ezagutu zuten pertsonak gero eta gutxiago dira. "Oso gutxi daude, eta une honetan batez ere biktimen senideen edo seme-alaben testigantza jasotzen ari gara. Etxean jaso dituzten kontuak" adierazi digu Iñaki Egañak.

Historialariak aitortu digunez, "protagonista zuzenen

testigantza jasotzeko garaia amaitzear dago", baina lan handia egin du eta azken bost urtetan ia 300 testigantza zuzen jaso dituzte Aranzadin, eta beste talde batzuek ere jaso dituzte testigantza, liburuak eta memoriak idatzi dira, literatura lanak ere bai...

"Nik uste sua piztu besterik ez dugula egin, duela hamar bat urte ez zegoen gaia hain gizarteratua eta orain, ordea, bai. Egoera iraultzeko eta gizarteak ezagutzen ez zuena barneratzeko balio izan du" esan digu Egañak.

"Islada Ezkutatuak" Lasarte-Oriako lan taldearen sorrera albiste ona dela eta bere arrakastak harritu egin zuela esan digu: "Taldeak izan duen harrera onak esan nahi du beharra bazegoela eta poztekoa da. Argi dago, batetik, lan eginez gero emaitzak jasotzen direla, eta bestetik, herriko jende asko zain zegoela. Abian jarri bezain pronto laguntzeko eskaintza egin du jende askok".

Aurkezpenen hitzaldi aretoa jendez gainezka egoteak

bultzada ematen die horretan ari direnei: "Guk argi daukagu lanak merezi duela, baina jende asko ikustea bultzada handia da, erraztu egiten du horrek lana".

Ezkututik agerira

Taldeak lanean jarraituko duela uste du Egañak, hori adierazten du erantzun on eta jendearen gogo horrek: "Bai horretarako jaio da taldea. Aurrera goaz. Gerraren ondoren frankismoa etorri zen, herri honi asko ezkutatu zaio eta azalatu behar dena azalertzeko oraindik lan asko dago, luze joko du: ez onerako ez txarrerako, azken finean gure historiaren zatiak besterik ez dira, orain arte ezkutuan egon direnak" bukatu du Egañak.

Aranzadin gustura ari da lanean Iñaki Egaña talde oso zabal batekin. Estatu mailan, hiru mila gorpuzkin inguru ikertu dituzte, horietatik 300 baino gehiago Euskal Herrian. Lasarte-Oriako eskaera batzuek jaso dituzte, baina epe laburrean ez dute ezer konkreturik egiteko asmorik.

Paco Altunaren eskulanak kultur-etxean

Paco Altuna herritarren eskulanak ikus daitezke Manuel Lekuonako erakusketaren ostiraletik eta martxoaren 1era bitartean.

Altunak maketak eta margolanak egiten ditu eta duela denbora bat bere maketak ikusteko aukera izan zen Manuel Lekuonan bertan. Hartan, Lasarte-Oriako eraikin zaharren maketan izan ziren eta honetan berriz, mota askotako margolanak eta maketak aurkezten ditu.

Lasarte-Oria bere lanetan

Paco Altunaren zaletasuna da eskulanak egitearena eta oso pozik azaldu da hauek herritar guztien eskura jartzeko aukera berri honekin. Denbora pasa ederra da berarentzat



Lehenengo egunean, ostiraletan, bisitak jaso zituen erakusketak.

honakoak egitea. Lasarte-Oria beti dago presente bere lanetan eta erakusketan igeltsuz egindako eraikin zaharrak ikus daitezke, Uistin baserria, Arteaga etxea, Geltoki kalean kokatuta zeuden lau etxe, garbitoki zaharra, Loidi-

Barrengo zubia besteak beste.

Hala nola, Kontxako barandilla, Realaren ikurra eta Igeldoko gaztelua. Guztira 28 lanek osatzen dute erakusketak. Martxoaren 1a arte izango da ikusgai 18:00etatik 21:00etara bitartean.



Ibilgailu klasikoaren III. ibilbidea

Errenneriako Don Bosco ikastetxeak Ibilgailu klasiko eta aurre-klasikoaren III. ibilbidea antolatu du, otsailaren 23an.

Honetan 20 urte baino gehiago duten 120 kotek parte hartuko dute eta Errenneriako ikastetxetik Tolosako paper eskola ohira dagoen bidea egingo dute, joan-eto-

rrian. Beraz, Lasarte-Oriatik igarotzen ikusi ahalko ditugu.

Ibilbideaz gain, Errenneriako ikastetxean hainbat ekitaldi antolatu dituzte, hala nola, Michelin enpresa eta Lagunak autoeskolaren simuladore bana edo exaletric bat. Ibilgailuen ibilbidea amaitu ostean, Fakundo Vitoria Dakkarreko piloatoki hitzaldia eskainiko du.

Kultur Kale zikloa garatzen

- Kultur Kale zikloan Makala Jazz Funk Band, Anai Arrebak edo Oreindik taldeek joko dute
- Uda aldean, antzokietatik atera eta kalean zikloko hainbat emanaldi egingo dira

Bigarren urtez, Lasarte-Oriako Udalak eta Xpression kultur elkarteak Kultur Kale Zikloa antolatuko dute. Herriko hainbat taberna eta dendatan emanaldiak izango dira urte osoan zehar eta berrikuntza bezala, udan kalean egingo dira kontzertuak.

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oriako Gazteria, Festak eta Kirola sailak eta Xpression kultur elkarteak beste urte batez elkarlanean Kultur Kale zikloa garatuko dute. Horrela adierazi zuten ostiralean Manuel Lekuona kultur etxean eskainitako prentsurrekoan.

Taxio Arrizabalaga Gazteria, Festak eta Kirola saileko buruak adierazi zuenez, "Kultur Kale zikloa 2012 urtean sortu zen, Manuel Lekuonako kafetegian egiten ziren kontzertuen lekukoa hartuz".

Iaz ekitaldiak Manuel Lekuonatik atera eta "dendatara eraman genituen espazio naturalagoetara kultura eta sorkuntza herrira gerturatzeko asmotan".

Zinegotziak oso positiboki baloratu du iazko esperientzia. "2012. urteran oso emankorrak izan zen. Guztira 6 areto eta dendak ezberdinetan 20 ekitaldi izango direla auzeratu izan gurentzat", aipatu zuen.

Era berean, ziklo honen helburua gure herrian ekintza kultural alternatiboei bideak zabaltzea eta artisten sorkuntza hedatu eta promozionatzeko bitartekoak ematea dela gogoratu zuen.

Jokin Telleria Xpression elkartearen kidea ere 2012. urteko emanaldien balorazio ona egiten du.

Berarentzat oso positiboa da kultura herritarrei hurbiltzea eta era honetara, parte hartzen duten komertzioei laguntzea.

"Iaz denda baten erakuslehoan egin zen kontzertua eta jendea harrিতuta gerturatu zen", azpimarratu zuen.

EGITARUA

Ondorioz, aurten ere Kultur Kale zikloaren edizio berria izango da Lasarte-Oriako.

Hau otsailaren 22an hasiko da Abend kafe-antzokian izango den kontzertuarekin. Honetan Makala Jazz Funk Band, Dj Makalak sortutako taldea eta Anai Arrebak talde ezaguna izango dira.



Taxio Arrizabalaga zinegotzia, Xabier Goitia eta Rosa Illarramendi teknikariak eta Jokin Telleria Xpression elkartearen kidea aurkezpenean.

Martxoaren 9an bi kontzertu izango dira. Mendi Rock Kafe tabernan Nai Moore King eta The Bluebirds taldeen jazz, blues eta soul izango dira antzokian.

Eta Jalgi kafe-antzokian, berriz, Oreindik taldearen diska berriaren aurkezpen festa izango da. Taldeak diska berria eskainiko ditu eta ondoren, Blami Dj-aren saioa izango da.

Hiru hilabete honetako azken saioa, Siglo 20 tabernan izango da martxoaren 16an. Honetan, Giorgio Bassmatti

kantautorearen pop eta indie doinuez gozatu ahalko da.

Berrikuntza

Prensaurrekoan aurreratu zutenek, herritarrei emanaldiak gerturatzeko pauso berria bat emango da, "udan kontzertuak eta ekitaldiak kalean egingo dira".

Honela Sagardotegi kalean, Okendo plazan edo Eliza ondoko plazan emanaldiak egingo dira.

Artista eta lokalak

Alabaina, ziklo hau ezin da

aurrera atera komertzio eta artistarik gabe.

Horregatik, Xpression elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak herriko dendak eta taberna ezberdinei dei egin nahi diete zirkuitu honetan parte hartzeko, baita artistei ere.

Kultur Kale Zikloan parte hartzeko Lasarte-Oriako Gazteria, Festak eta Kirola departamentuarekin edo jokin@xpression.net Xpression kultur elkartearekin harremanetan jarri behar dira interesa duten pertsonak.

Udal liburutegian liburu elektronikoen mailegua

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako liburutegian berrikuntza bat dago, liburu elektronikoko edo "e-book"-ak. Hauen erabilera eta mailegu zerbitzuaren berri emateko ostegunean Izaskun Urdanpilleta, udal liburutegiko arduraduna, Xabier Goitia, Manuel Lekuona kultur-etxe zinegotzia den Boris Nogales-ek aurkeztu zuten ekimen berria.

Hamar izango dira Udal liburutegiko erabiltzaileen eskura jarriko diren irakurgailu digitalak.

Mailegutza 21 egunerako izango da eta erabiltzaileei irakurgailua, funda eta bateria kargatzailea utziko zaizkie.

400 liburu

Liburu elektronikoko bakoitzean betiko 250 euskarazko liburu, gaztelaniazko 100 eta ingelesezko beste horrenbeste titulu aurkituko dituzte gailu berriak maileguan hartzen



B.Nogales Kultura zinegotzia, I. Urdanpilleta liburutegiko arduraduna eta X. Goitia Manuel Lekuonako gerentea "e-book"-ekin.

dituzten erabiltzaileek.

Hauetaz gain, Udaletxeak argitaratutako liburuak ere hauetan aurkituko dituzte, hala nola, Antxon Agirre Sorondoren "Oria. Una comunidad de vida, un espacio de trabajo" edo Jose Luis Navaroren "Relato breve de Lasarte".

"400 izenburutik gorako bildumaz hitz egiten ari gara. Autore eskubiderik ez duten liburuak dira, gaur egun, oraindik liburu berrien inguruan gauza batzuk solte gelditzen dira eta oraingoz, liburu berririk ez da egongo formatu digitalean", adierazi zuten.

Hala ere, Eusko Jaurlari-

tzak, aldiro administrazio gehiagorekin, honi konponbide bat bilatu nahian dabilela jakitera eman zuten.

Baldintzak

Agerraldian arduradunek esan bezala, udal liburutegiko adinez nagusi diren erabiltzaileek bakarrik dute liburu

elektroniko hauen mailegua eskatzeko aukera.

Gainera, zerbitzu hau erabili ahal izateko, udal liburutegiko erabiltzaile izateko nahikoa da, hau da, Lasarte Oriako Udal Liburutegiaren bazkide-tartela indarrean izatea.

Erabiltzaileek erabilera-baldintzekin ados daudela adierazten duen agiri bat onartu eta sinatu beharko dute. Era honetara, erabiltzaileak irakurle elektronikoen erabilera egokia egingo duela konprometuz hartzen du eta Jabetza Intelektualaren arloan indarrean dagoen legediak errespetatu.

Gauzak honela, liburutegiak edota Kultura Zerbitzuen buruak beharrezko ikusten dituen ekintzei heltzeko eskubidea hartuko du zerbitzuaren araudia betetzen ez bada.

Mailegu zerbitzuaren informazio gehiago nahi izanez gero, Udal liburutegian eskura daiteke. Bertan zerbitzuaren araudia dago herritarren zuzeneko informazio panel batean erraz azalduta.

Michelin II eremuko erabilera aldaketari buruzko hausnarketa

- Eremu industriala eta merkatal gune bat jartzeko proposamena egin du Michelin fundazioak
- Udalak erabilera aldaketari baimena eman behar dio ► Herritarren iritzia jakin nahi du Udalak

Michelin Fundazioak Michelin II eremuan merkataritza ertaineko eremu bat aurreikusten du. Lur horien erabilera aldaketa egin behar da hori gauzatzeko. Udala alderdi zein merkatariekin bildu da haien kezka ezagutzeko. Orain herritarren iritzia jaso nahi du. Proiektuari buruzko informazio guztia hurrengo asteazkenean, Manuel Lekuona kultur-etxean egingo den batzar irekian eskainiko du Udalak.



Gorka Lizarraga, Pablo Barrio eta Nerea Sanchez Michelin II eremuko proiektuaren eta galdeketaaren aurkezpenean.

Nerea EIZAGIRRE

Pablo Barrio alkateak, Nerea Sanchez Hirigintza saileko buruak eta Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzu eta Merkataritza arloko batzorde buruak ostiralean Michelin II eremuko proiektuari buruzko informazioa eskaini zuten.

Honen harira, Lasarte-Oriako eragileek izan dezaketen iritzia biltzeko asmoz, alderdi eta merkatariekin bilera egin dituela eta herritarrei galdeketa egingo zaiela jakitera eman zuten.

Aurrekariak

Prensaurrekoan Pablo Barrio alkateak proiektu honen aurrekariaren errebaso bat egin zuen lehenik.

2008. urtean, birmoldaketa plan bat martxan jarri zen eta bertan 800 lanpostu inguru galdu ziren.

2009an, Michelin II eremu berrindustrializatzeko planari hasiera eman zitzaion.

Horretarako Aholkularitza kontseilua sortu zen. Michelin fundazioako kideek, Lasarte-Oria eta Usurbilgo Udalek, Eusko Jaurlaritzako Sprilur erakundeak, Foru Aldundiak eta sindikatuek osatzen zuten.

Honen helburua industria erakarri eta lanpostuak sortzea zen.

2010. urtean eremuko biltegia eta eraikinak eraitsi ziren.

Sprilur-rek egoera ekonomikoa zela eta, dirurik ez zegoela adierazi eta bertan behera geratu zen proiektua.

Proposamena

Era honetara, alkateak prentsaurrekoan azaldu zenez, Michelin fundazioa Udalariekin harremanetan jarri zen iaz. Michelin II eremurako

inbertitzaile bat zuela eta erabileraren proposamen berria azaldu zien.

Proposamen honetan eremu industrialaz gain, merkataritzarako beste gune bat ere aurreikusten da.

Era berean, merkatal gune honetan 100 lanpostu baino gehiago sortuko lirakeela jakin arazten du.

Prensaurrekoan azaldu zutenek, Udalak ez daki zein den inbertitzailea, "baina denda ertain bat izango da, herrian ireki diren BM edo Eroski antzekoa".

Baimena behar

Nahiz eta udal lurraz ez izan, proiektu hori aurrera eramateko Udalarren baimena behar dute Michelin fundazioak eta inbertitzaileak.

"Oraingoz, lurren kalifikazioa aldatu beharko litzateke

eta plan berezi bat egin. Arau subsidiarioak ez lirakeke aldatu beharko, eremuaren ektura aldatuz gero ikusi beharko litzateke", azaldu zuen Nerea Sanchez Hirigintza saileko arduradunak.

Proiektuaren datuak

Prensaurrekoan azaldu zutenek, proiektua lantzen ari da eta ezin dira datak zehaztu. "Negozialetan aldaketak egon daitezke, baina erreferentzia gisa, bi urteko epea jarri zen" aipatu zuten alkateak.

Prensaurrekoan adierazitakoaren arabera, proiektu berriaren behin behineko ezaugarriak hauek izango lirakeke, beraz: 18.000 m. karatu, horietatik 5.000 erabilpen komertzialerako eta aparkalekuearako izango lirakeke, beste 4.900 m karatu bulegoentzako eta eremu industrialerako 7.600 m. karatu.

Iritziak jaso

Gauzak honela, Udalak proiektua publikoan egitea erabaki du. "Gaiari buruko hausnarketa egin eta iritzi guztiak jaso nahi ditugu", adierazi zuen Pablo Barriok.

Horretarako, aste honetan alderdiekin eta herriko merkatariekin bildu da Udala gobernuak. "Komertzio txikien kezka eta galderak erantzun ditugu ahal moduan", azaldu zuten alkateak.

Izan ere, "gaia poliedrikoa da. Alde positibo eta negatibo asko ditu eta kezka sortzen dizkigu. Herriko komertzioan eragina izango du. Era berean, lanpostuak sortuko lirakeke..."

Batzarra eta galdeketa


Orain herritarrei "hain iritzia azalaztea eskatzen diegu" aipatu zuten alkateak.

Horretarako etxeetan eskuorri bat banatu da eta otsailaren 20an Manuel Lekuona kultur etxean herri batzarra egingo da.

Batzarrean proiektuari buruzko nondik norakoak herritarrei azalduko zaizkie. "Hau irekia da eta edozein elkarterako kide edo herritar soilak hurbildu daitezke", aipatu zuten.

Eskuorriari dagokionez, hausnarketa galdeketa bat dela azaldu zuten, "informazioa eskaintzen da eta galdeketa bat dago. Hau ez da erabakiorra izango, baina Udalarri baliagarria izango zaio erabakia hartzeko".

Honela, eskuorria beteta, martxoaren 1a baino lehen, Udalak eraikin publikoetan jarri dituen parte-hartze postontzietan utzi behar dela jakitera eman zuten.



Michelin II eremuko planoaren erabilera bakoitzerako behin behineko proposamenaren.

LO UDALA

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuriatan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

ATLETISMOA.-

LOKEko atletak markak metatzen doaz

Ormazabalek bere marka berdindu eta Galardik Espainiako txapelketarako marka egin zuen

Lehenago larunbatean, otsailaren 9an, LOKEko atletak bi txapelketetan parte hartu zuten. Batetik Gaizka Ormazabal gaztea Donostian ospatu zen Promesa mailako Espainiako txapelketan izan zen lehian. Kadete eta jubenilak, berriz, Zaragozan izan ziren Erkidego arteko txapelketan parte hartzen.

L OKEko atleta gazteak pista denboraldiko azken txapelketetan ari dira lehiatzen. Asteburu honetan Kadete, jubenil eta junior mailako Euskadiko txapelketan parte hartu dute. Hala baina, aurreko astean, Espainia mailako txapelketetan izan ziren.

Gaizka Ormazabal gaztea promesa mailako Espainiako txapelketan lehiatu zen lehenago asteburuan, Donostian.

Beretzat oso polita izan dela jakin arazi digu, "besteekin alderatuta hobeto konpetitiboa dut. Ez dakit etxean lehiatu naizelako izan den edo, baina gustura egon naiz. Bertako jendea zegoen, familia, lagunak eta gustura nengoen".

Gaizka jubenil mailan hasi zen Estatuko txapelketetan parte hartzen, baina hau ezberdina izan dela onartu du, "Espainiako txapelketetan urduiriago jartzen zara eta azkenean urteak pasa ahala esperientzia hartzen duzu eta aurten behintzat ez naiz urduri jarri ere. Ez dakit etxean izateagatik edo izango zen".

"Bestetan larunbatean lehiatzen banintzen bazkalteko komerkiak, aurten normal bazkaldu dut, lo ere

normal. Hori ere urteekin ikasi egiten da", gaineratu du.

Marka berdindu

Promesa mailako 200 m. lasterketan final erdietara iritsi eta 22,62 marka egin zuen, bere denborarik onena berdinduz.

"Kanporaketa igarotzea espero nuen. Justu-justu pasa nintzen finalerdietara, hamabigarren izan nintzen", adierazi du herritar gazteak.

"Bederatzigarren geratu nintzen final-erdian. Pena izan zen finalera zortzi pasatzen zirelako eta gutxira geratu nintzelako. Hala ere, nire marka onena berdindu nuen, kale txar batetik, hirugarren kaletik aterata eta pozik nago," aitortu du Ormazabalek.

60 m. hesi-lasterketa

60 m hesi-lasterketan ere lehiatu zen Ormazabal. Hau ezusteko bat izan zen berarentzat, "Ez nuen gutxieneko markarik. Baina gertu nengoen, azkeneko parte hartzaile bezala onartu ninduten", aipatu digu.

Lasterketa honetan ez zen oso ongi ibili, "Eguneko hirugarren lasterketa zela nabaritu nuen. Nahiko desastre egin nuen", onartu du.



Gaizka Ormazabal 200 m. lasterketako momentu batean.

MIKEL MATEY

Lanaren fruitua

Hau guztia lanaren fruitua da, "irailean hasi genuen prestaketa aurre denboraldiarekin eta behin lehiaketak hasita entrenamendu espezifikokoak egin ditut, abiadurako entrenamenduak eta ondo entrenatuta astean lau edo bost aldiz emaitzak lortzen dira".

Orain aire libreko denboraldia prestatzen hasiko dela aipatu digu, "bi aste luzatu, Gipuzkoako txapelketa prestatzen hasteko, gero aste bete pista zapaldu gabe eta aire

librea prestatzen hasiko gara".

Honetan 400 m. hesi-lasterketarako prestatuko da. Iaz Estatuko txapelketan izan zen proba honetan eta aurten ere egotea espero du.

Hala ere, zail ikusten du: "Espainiakoetara joatea zaila da. Oso gutxi egin dituzte marka gutxienekoak eta hamasei onenak doaz. Bertan egotea zaila da. Iaz justu sartu nintzen, hamabosgarren denbora egin nuen eta aurten berriro ere bertan egotea espero dut".

Erkidego arteko txapelketa

Bestalde, LOKEko zazpi gazte kadete eta jubenil mailako Erkidego arteko txapelketan izan ziren Gipuzkoako selekzioarekin, Zaragozan.

Oscar Goikoetxeak entrenatzen dituen gazteek lan ona egin zuten eta azkenean, Gipuzkoako selekzioa hirugarren izan zen.

Aipatzekoak dira, 400 m. lasterketan Itoitz Rodriguezen garaipena, Ane Galardiren bigarren postua jauzi hirukoitzean edo Eneritz Bustoren hirugarren postuan altuera proban.

Galardiren kasuan, jauzi hirukoitzean lortutako markak 11,07 Espainiako txapelketarako txartela eman zion lasartiarari gazteari.

Hauetaz gain, pisuan Maider Rekondok seigarren postuan amaitu zuen, Idoia Olsagasti zazpigarren izan zen luzera jauzi proban eta Yeray Veronizek 60 m. lasterketan parte hartu zuen.

Era berean, Itoitz Rodriguez, Eneritz Busto eta Maria Eugi erreleuben proban lehiatu ziren. Neskek bigarren postua eskuratu zuten; mutilek, berriz, bosgarrena.

Konzentrazioa

Gainera, LOKEko sei gazte, Ane Galardi, Itoitz Rodriguez, Joan Ander Bruño, Maider Rekondo, Maria Eugi eta Yeray Veroniz Gipuzkoako federazioak junior eta jubenil mailako gazteekin Aste Santuan Benicassim-en egingo duen kontzentrazioan parte hartzeko deituak izan dira.

FUTBOLA.-

Ostadarren lehen minutu madarikatuak

Partidu zaila zen Ostadarreko mutilek (Oherezko Erregionala) larunbata arratsaldean Michelingo zelaian jokatuakoa, Real Union B hartzen baitzuten, hirugarren sailkatua.

Azken emaitza 1-3koa izan zen eta hiru puntuak Irun aldera egin zuten hegana.

Lehen minutuetan lo

Erdi-lo ekin zioten partiduari urdin-beltzek. Gola jasoa zuten 3. minuturako irundarren jokaldi azkar baten ostean.

Maldan gora hasi behar neurketa. Trabatua xamar joan zen lehen zatia, Ostadarrek bakarkako jokaldien bidez

aukeraren bat edo beste sortu zuen, baina ez benetako arriskurik.

Unionek, bere aldetik, kontraerasoekin aukera batzuk sortuagatik, partiduan kontrola etxekoena zen.

Lehen zatiko aukerarik onena Aitor Manerok eduki zuen 35. minutuan, atezainaren aurrean bakarrik geratuta, baina honek geldiketa ikusgarria egin zuen. Bigarren zutoinean zain zegoen Iñigo Gonzalez, baina defentsa irundarra azkarrago ibili eta korneirera bidali zuen baloia.

Eta nolakoa den futbola... Hurrengo jokaldian bigarrena

sartu zuen Unionek, Ostadar berdintzeko meritu gehien eginen ari zen unean.

Ezin buelta eman

Bigarren zatian hasiera lehenengoaren berdin berdina izan zen. Ostadarren defentsaren huts bat tarteko, 5. minuturako Real Unionek hirugarrena sartua baitzuen.

Oherearen gola behintzat egin zuen Arkaitz Sanchezek, atezainaren gainetik baloia loratuta. Unionek ez zuen partidua irabazteko meritu handiegirik egin baina... Lehen minutu madarikatu horiek... Sufritzen jarraitu beharko du.



David Martin erdilaria Real Unioneko atzelariari iskin eginen larunbateko partiduan.

Agenda

Osteguna 21, 21:30ean eta igandea 24, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



Errealitatea eta fikzioa nahasten

Ostegun zinea eta Helduen zinea ataletan, "En la casa" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik.

Film honek institutu bateko literatura irakasleak duen ezinegon eta frustrazioarekin kontaktzen du. Ikasleei erredakzio bat egiteko eskatuta, ikasle batek amaierarik ez duen idazlan bat entregatu dio, "jarraituko du" dira idazlanaren azken hitzak. Ikasleak bere bizitza eta bere ingurukoena kontaktzen du

hauetan. Biei idazlanetako literaturaz bakoitzaren bizitza errealek aparte uztea kostako zaie.

François Ozonék Juan Mayorga dramaturgoaren "El chico de la última fila" lanaren adaptazioa egin eta Donostiako Urrezko maskorra irabazi zuen film honekin.

Sarrerak, ostegunean leihatilatan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro; igandean leihatilatan 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

ABEND KAFE-ANTZOKIAN

Ostirala 22, 00:00etan

Anai Arrebak eta Makala Jazz Funk Band-en kontzertua. Sarrera, 5 euro.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Hilabete osoa

PROSALUS elkartearen "Elikagaia izateko giza eskubidea" panela ikusgai.

Ostirala 15-Astelehena 01

Paco Altuna herritarraren arte lanak ikusgai izango dira.

Hernani

Literatur solasaldia

UDAL LIBURUTEGIA

Asteartea 19, 19:30ean

Irati Elorrietaren "Burbullak" liburua- ren solasaldia egingo dute. Ane Mayozen izango da dinamizatzailea.

Bestelakoa

ATSEGINDEGI PLAZA

Larunbata 23, 10:30etik aurrera

Bigarren eskuko azoka izango da.

Usurbil

Ikastaroa

AGERIALDEKO JALNGELA

Larunbata 23, 09:30etatik aurrera

Ogia egiteko ikastaroa antolatuta du Usurbiltzen elkarteak. Izena ematea usurbiltzen@gmail.com helbidean egin behar da, nor bere izen abizenak eta "Ogi ikastaroa" izenburua jarri behar du emailan. 30 eurotako da matrikula.

Lasarte-Oria

II. Urpeko Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 18, 19:30ean

"Neskatila baten meza" film laburra eta "Ondinesia" dokumentala ikusiko dira. Danok Kide elkarteak Real Sociedad kirol elkarteke urpeko sailak antolatuta.



Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 22, 18:00etan

"Gure bide galduek" antzerkia eskainiko du Dejabu papin laborategiak. Utopia, amets eta desenkantuari buruzko kontakizuna da. Sarrera leihatilatan 4,60 euro; internetez, 4,32 euro.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 20, 19:00etan

Michelin II eremuko proiektu proposamenaren berri emango du Lasarte-Oriako Udalak.

Osteguna 21, 19:00etan

"...Eta gerra iritsi zitzaigun!!" hitzaldia eskainiko du Inaki Egaña historialariak, Islada Ezkutatuak orimen historikoaren taldeak antolatuta.

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Ostirala 22, 23:00etan

Inigo Muguruza eta bere taldeak "Lurra" proiektua aurkeztuko dute. Afrikatik ateratako esklaboaren erritmoak Europako eta Amerikako folkloreekin nahastutako bossa, blues eta reggae estilok jorratuz.

Herritarren txokoa

Herritarren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, otsailaren 22an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar gutzietan parte hartu dezaten.

Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da otsailaren 22an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Odol ateratzeak

Hileroko azken asteleheneko bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan otsailaren 25ean, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odol falta dago eta!

Lasartearra elkarteke XXXVI. mus txapelketa

Lasartearra elkarteak bere bazkide eta lagunei jakin arazten die, XXXVI. Mus txapelketan parte hartzeko izena ematea ireki dela. Izena eman nahi dutenak elkartera hurbildu behar dira, otsailaren 20a baino lehen.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ezkontza eraztuna, bi ordulari, sei batureko graduatu, patinete bat, euritako anorak bat eta bost mugikor.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteke epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona gutzietan eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Biyak Bat elkarteke kuota

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die urteroko kuota, 8 euro, martxoa amaiera arte ordaindu ahalko dela egoitzako bulegoan goizeko 10:30etik 12:30era.

Era berean, hiru hilabete hauetan, 2011 eta 2012 urteko bazkideetza ordaintzen ez dutenei baja emango zaiela jakitera ematen du elkarteak.

85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin behar.



Korrika-ko mus txapelketa

Korrika 18-aren ekintzen barruan, Gipuzkoako II. Mus txapelketa antolatuko da. Usurbil eta Lasarte-Oriako kanporaketa otsailaren 23an, 16:00etatik aurrera izango da Xirimiri elkartearen.

Izena ematea egunean bertan 15:30ak aldera irekiko da. Bikoteko 5 euro ordaindu beharko dira.

Kanporaketako bi bikote finalistentzat sariak egingo dira.

Korrika-ko kilometroak salgai

Korrika 18-ko kilometroak salgai daude. Lasarte-Oriako elkarte, alderdi politiko edo banakakoek erosi dezakete kilometroa, era honetara AEKri bere laguntza emanaz.

Munnteri AEKko arduradunek azaldu dutenez, gure herrian kilometro erdiak izango lirateke.

Kilometro erdiren bat hartu nahi dutenek Munnteri-AEK-ra hurbildu

edo telefono zenbakira ditu behar dute.

Korrika laguntzaile txartelak

Korrika 18-ari babesa emateko laguntzaile txartelak honako lekuetan daude salgai: Jalgi Kafe-antzokia, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Munnteri-AEK-n.

12 euro balio duen txartela erositaz, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertzietan beharpenak eskuratu dituzte herritarrek.

Korrika 18-aren arropa salgai

Korrika 18-aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte.

Jokin Telleria XpressionK

“Jendeari kultura hurbildu behar zaio”

■ XpressionK Manuel Gonzalezekin batera sortu zuen duela hamar urte ■ Helburua artista berrientzako zirkuitu alternatibo bat osatzea zen, egun hori baino gehiago da

Jokin Telleriarentzat urte berezia da 2013a, aurten hamar urte beteko dira XpressionK ekimena mar-txan jarri zuenetik. Urte hauetako asmoa kulturari esparru berriak zabaltzea izan da, artista berriei agertokiak eskaini eta ez-ohiko espazioetara kultur adierazpen ezberdinak eramatea. Urteurrena ospatzeko ekintza berezirik egitea ez du baztertzen.

Maidar AZURMENDI

Jokin Telleriak 22 urte zituen XpressionK sortu zuenean eta urte hauetan asko izan dira emandako pausoak. Kultura kalera atera eta gerturatu behar dela argi dauka; hau egiteko bideak bilatzea izan da urte hauetako lana. Gizartean kulturaren normalizazioa falta dela adierazten du eta noski, artista berrientzako espazioak lortzea oinarritzak dela.

10 urte XpressionK sortu zenuela. Nola jaio zen?

Usurbilen Jazz Kalea taberna zegoen eta bertan kontzertuak antolatzen hasi ginen Manuel Gonzalez eta biok. Nik garai hartan Zama taldean jotzen nuen eta Manuelek proposatu zidan kontzertuen antolaketa laguntzea. Orduan 22 urte nituen eta hala hasi ginen.

Konturatu ginen artista asko zegoela, kalitate handiak eta espazioen falta handia. Kontzertuak ezin lotu, taldeak asperitu eta jotzeari uzten zioten. Nolabait halako egoerak ez gertatzeko espazio bila hasi ginen, zirkuitu alternatibo bat sortu nahi izan genuen.

Hasieran laguntza behar dute taldeek?

Nik beti futbolarekin parekatzen dut gure lana, harrobia beharrezkoa da jokalaria profesionalak lortzeko eta harrobi hori zaindu behar da eta aukerak eman. Ba gauza bera kulturaren esparruan. Musikari, artista berriei aukera, agertokiak eskaini behar zaizkie utzi ez dezaten.

Elkarte bat da XpressionK...

Bai. Zirkuitu hori osatzeko beharrezkoa genuen finantzia-zio iturriak bilatzea eta egokiena irabazi asmorik gabeko elkarte bat eratzea izan zen. Horela babesle pribatu zein publikoetatik dirua jasotzea posible genuen. Irabazi asmorik gabekoa, helburu soziokulturala delako gurea.

Kulturaren sustapena da helburua...

Lanean hasita erabaki genuen hiru arlo artistikoak jorratzea, musika, arte eszenikoak eta arte plastikoak.

Udal desberdinekin eta enpresekin hitz egiten hasi ginen eta gure ekimena ezagutzera ematen. Espazioak eskaini artistei, jendeari artea gerturatu, nolabait betiko kultur aretoetatik haur ateratzea da asmoa. Jendeari gerturatu honen normalizazioa lortzeko.

Helburua esan daiteke ez dela guztiz bete. Kulturaren kuantitatiboki neurtzen dira arrakastak, eta gurean artista ezezagunak direnez, ikusle kopurua ez da masiboa.

Kultura ez dago normalizatuta?

Ez, bide luzea geratzen da. Zer egiten du arteak leku itxi batean? Zergatik ito egiten dute artea areto eta museoetan? Nire ustez honek esan nahi du artea ez dagoela normalizatuta... gure normalizazioa oso zentzu zabalean bilatzen dugu, mugak apurtuz. Denda batean kontzertu bat egin, arte erakusketak kalean...

10 urtetako ibilbidea nolako izan da?

Lan egiteko moduan malgua. Helburua kultura alternatiboa sustatzea da, industriatik, erakundeetatik kanpo dagoena bultzatuz. Hasieran espazioak bilatzen genituen taldeei eskaintzeko, zirkuitua osatzeko. Baina urteekin, konturatu gara artista hauek ez dutela soilik eszenatik behar.

Erakundeekin kontratuak lortzeko garaian ez dakite zein paper behar dituzten, nola jokatu eta gure, aholkularitza hau eskaintzen diegu. Honetaz gain, euren emanaldiak promozionatzen laguntzen diegu ere.

Oso malguak bilakatu gara. Antolaketa baino gehiago da egun egiten duguna eta bila-kaera esanguratsua izan da guretzat. Geografikoki zabaldu, zerbitzuak eskaini eta urte-



Jokin Telleriak ez du baztertzen X. urteurrena ospatzeko azaroen ekimen berezia egitea.

tik urtera ekimen kopurua igo.

XpressionK Euskal Herritik haratago...

Bai, Gipuzkoan hasi eta urte hauetan zabaltzen joan da. Nire sozioa duela lau urte Galiziara joan zen eta han ere sortu zuen XpressionK.

Egun, Euskal Herria, Kantabria eta Burgoseko ekimenez arduratzen naiz ni eta berak, Galizia, Asturias eta Leonen ere antolatzen ditu.

Zabalkunde hau modu naturalean gertatu dela esan behar da. Azkenean babesle bila zabiltzanean mota askotako enprekin topo egiten duzu eta hauen eskaerari erantzuna eman nahian eurek proposatutako lekuetan antolatu ditugu emanaldiak. Sare hau mantentzeko kolaboratzaileak ditugu.

Zenbat talde, artista...

2012an 250 ekimen eta urte hauetan 2.500 inguru izan dira baina guretzat ez da nahikoa. Ekimen txiki gehiago egon beharko liriteke.

Askotan esaten digute jaialdi handi bat ez ote dugun antolatu behar eta jaialdiarena ez dugu inoiz baztertu, baina gure filosofiarekin bat egiten duena emanaldi txikiak dira, hauetako asko eta urtean maiztasun finko batekin.

Jendeak kultura eskaintza etxetik gertu duela ikusita, ohitu eta kontsumitzaileak bihurtuko dira.

Artista asko, baina zeinek utzi dizu oroitzen berezia?

Talde asko izan dira, baina bereziki gogoratzen dut

Zuhaitz Gurrutxaga futbol jokalaria ohiari bere lehen kontzertua lotzea lortu genuen. Grises taldearena, orain asko entzuten da hauen musika Radio3en adibidez.

Baina bereziki hunkitu nauena margolari bat izan da, bere erakusketak antolatu eta margolan izugarri bat oparitu zidan. Honetan islatu nahi izan zuen XpressionK-ren filosofia eta guztiz lortu zuen.

Eszenatik ezberdinak kudeatzearena aipatu duzu...

Bai aipatu bezala gure ustez edozein espaziotan jarri daiteke erakusketak bat edota kontzertu bat egin.

Urte hauetan lorategi batean antolatu dugu erakusketak bat, Lasarte-Orian Kultur Kale zirkloaren baitan, Orbel dandaren erakusleihoan eskaini zuen musikari batek kontzertua... ekimen hau adibidez oso polita da eta aukera asko eskaintzen ditu. Gustatuko litzaidake espazio berri gehiago lortzea 2013an.

Lasarte-Orian aipagarriak dira antolatzen diren ekintzak eta Jalgin hilerio dagoen eskaintza.

Gure lan esparrua ere aldatzen da. Espazioak, aretoak desberdinak izaten dira beti, batzuk ixten dira, berriak zabaldu eta berdina taldeekin. Talde batzuk desegin eta taldeideak beste bat sortu edota beste talde batzuetan integratzen dira...

Nola lortzen dira talde berriak?

Aipatutako malgutasun hori dela eta, ez gara bulego batean egoten. Kalean egoten

gara, taldeekin, aretoekin harremanetan. Geroz eta espazio eta artista gehiago edukitzeko.

Krisi garaian kulturak nabaritu omen ditu murrizketak...

Egia esateko gu beti egon gara krisian. Lehenengo urteetan batez ere diruz oso larri ibili ginen. Hazten joan eta diru iturri ezberdinak, nahikoa dibertsifikatuta ditugu. Gehien murriztu direnak diru laguntza publikoak izan dira, azken lau urtetan %75.

Krisia aukera bat da. Kontsumitzaileak gauza merkeentara jotzen du eta guretzat aldaketa hau abantaila da. Artista ez profesionalak mugitzen ditugun neurrian, merkeak garelako. Bestetik, erakundeek merkataritzan, turismoan dinamizazioa eskatzen ari dira eta gure proposamen interesgarriak ditugu.

Hemendik aurrera zer?

Gure helburuak hasierako berdinak dira eta horretan jarraituko dugu. Arte gerturatzeko, areto dotoretatik atzeri, entzun, bizi badagoela erakutsi eta jendea hurbiltzeko lanean jarraituko dugu.

Zerbait egingo al duzue 10. urteurrena ospatzeko?

Ezin da asko aurreratu. Berez urteurrena azaroen da eta azaroaren 15a egun polita izan daiteke zerbait egiteko. Hala ere, epe motzean, KA proiektu berria aurkeztu nahi dugu. Honen helburua taldeen, artisten eta erakundeen artean zubi lana egitea izango da.